

Jolastuz ikasi GEOGRAFIA

Josu Waliño Pizarro

Elhuyar

Hezkuntzarako multimedia produktu berria kaleratu berri du Elhuyarrek: *Jolastuz ikasi Geografia*. Hamabi urtetik gorako haurrei zuzendutako CD-ROMa da, eta geografian dituen ezagutzak neurtu eta jolastuz ikasi ahal izango du erabiltzaileak.

ERABILTZAILEA EDOZEIN ADINETAKOIA IZAN BADAITEKE ERE, DBHko ikasleei zuzendutako CD-ROMa da hau. Jolasen bidez, munduko kontinente guztietako geografia fisiko eta politikoa ikasteko aukera izango du erabiltzaileak, baita Espainiako, Frantziako eta Euskal Herriko geografia ere.



Bi erataraz jokatzeko aukera dago CDan: libreki jolastuz edo lehiaketa moduan. Erabiltzaileak libreki jolasteko aukera izango du **Zeuk hautatu!** botoia erabiliz. Libreki jolastean, norberak hautatuko du zertan jolastu nahi duen, hau da, zein kontinente edo herriekin jolastu eta zer gairi buruzko galderari erantzungo dien: geografia fisikoa edo politikoa, eta horien barruan zein ataletakoak izango diren galderak. Hainbat atal daude: geografia politikoan estatuak, hiriak, monetak, banderak, etab.ekin jolas daiteke; eta geografia fisikoan ibaiak, mendiak, aintzirak, basamortuak, etab.

Hautatzen duen kontinentea edo herrialdea hautatzen duela, 400 segundo izango ditu jolasteko, eta galdera bakoitzaren iraupena hautatutako zailtasun-mailaren arabera izango da. Ongi erantzuten duen galdera bakoitzeko 20 euro lortuko ditu. Galdera bat ongi erantzuteko bi aukera izango ditu beti, eta bigarren aukeraren ondoren erantzuna emango zaio. Segidako hiru galderari ongi erantzunez gero, zailtasun-mailaren arabera denbora-saria izango du.

Laguntza eskatzeko aukera ere izango du, baina laguntzaren truke zailtasun-mailaren arabera denbora galduko du.



Lehiaketa moduan jolastu

Lehiaketa moduan, jolas bat gehiago izango da aukeran: Argazki-rallya. Joko horretan argazkiz hornitutako milaka galdera izango ditu erabiltzaileak. Baina rallyan parte hartzeko, gutxienez, 1.500 euro lortu beharko ditu gainerako jokoetan. Horretarako, gutxienez, Euskal Herria, Espainia, Frantzia eta bi kontinenterekin jolastu beharko du, eta horietako bakoitzean gutxienez 300 euro lortu. Horietakoren batean 300 euroko mugara iristen ez bada, berriz jolastu beharko du herrialde edo kontinente horrekin, gutxienezko euro-kopurua lortu arte.

*“bi eratara
jokatzeko aukera
dago CDan:
libreki edo
lehiaketa moduan”*

Joko guztien artean gutxienez 1.500 euro lortzen dituenean jolastu ahal izango da rallyan, eta, hor lortzen dituen postalen arabera, sailkapen nagusian bere izena idazteko aukera ere izango du erabiltzaileak.

Libreki jolasteko aukeran bezala 400 segundo izango ditu, eta galdera bakoitzaren iraupena hautatutako zailtasun-mailaren arabera izango da. Ongi erantzuten duen galdera bakoitzeko 20 euro lortuko ditu. Galdera bat ongi erantzuteko bi aukera izango ditu beti, eta bigarren aukeraren ondoren erantzuna emango zaio. Segidako hiru

galderak ongi erantzunez gero, zailtasun-mailaren arabera denbora-saria izango du.

Laguntza eskatzeko aukera ere izango du, baina laguntzaren truke zailtasun-mailaren arabera denbora galduko du.


Aurten beste bi CD-ROM

Elhuyarrek aurten argitaratzen duen bigarren CD-ROMa da hau, eta beste bi argitaratzeko asmoa du. Lehen *Kantuketan* izan zen, hurrek musikaren mundua ezagutzeko CD-ROM interaktiboa. Oraingoan Geografiako CDa argitaratu da eta, urtea amaitu baino lehen, Piratekin munduan CD-

150 Gb-eko CD-ROMa

Berlingo Unibertsitate Teknikoko fisikari-talde batek 150 gigabyteko edukiera duen CDa aurkeztu berri du. Erabili duten teknologiarekin informazioa ez da bakarrik diskoaren azalean idazten, baizik eta bolumen osoan, hau da, hiru dimentsiotan.

Inork ez du azaldu zein den teknologia honen etorkizuna, baina agian DVDak badu ordekoa.



ARTXIBOKOA

Benetako birus informatikoa

Birus honen aurka ezin du ezer egin biruskontrakoak. Victor Cardenes geologoak aurkitu duen birusak CDaren azala jaten du. Ez da, ordea, birus informatikoa, CDaren azalean kokatu eta pixkanaka jaten duen onddo bat baizik. *Geotrichum* motakoa omen den onddo horrek ez du CDa une batetik bestera jaten, ia hiru urte behar baititu aluminiozko azalaren zati bat jateko.



ARTXIBOKOA



-sailarekin jarraitzeko asmoa dago. Irailean, *Piratekin Hizkuntzaren munduan 3* CD-ROMa argitaratuko da eta abenduaren hasieran *Piratekin Matematikaren munduan 2*, iaz argitaratutako CD-ROMaren jarraipena. □